

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK


## Abuztu amaiera arte hainbat ekintzarekin goza daiteke bost naturgune eta interpretazio-zentrotan

*Hegaztien behaketa, erakusketak, ibilbideak eta bisita gidatuak sartzen dira*

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 17

Abuztu amaiera arte Nafarroako Gobernuak bost naturgune eta ingurumenaren interpretazio nahiz informazioko zentrotako hainbat ekintzarekin gozatzeko jarrai daiteke: hegaztien behaketa, erakusketak, ibilbideak, bisita gidatuak edo haurrentzako jarduerak, besteak beste.

Honako toki hauek dira, zehazki: Irunberriko arroiletako interpretazio-zentroa, Erronkarikoa eta Otsagabiakoa; Cañasko (Viana) urtegia eta Bertizko Jaurerriko natur parkea.



Arbaiungo arroila.

### Arroilen interpretazio-zentroa, Irunberrin

[Arroilen interpretazio zentroa](#), Irunberrin, asteartetik larunbatera bisita daiteke, 12:00etan.

Teleskopio bidezko hegaztien behaketa egiteko aukera ere eskaintzen du larunbatetan, 19:00etatik aurrera Isoko behatokitik, Arbaiungo arroilan.

Egin daitekeen beste jarduera bat teleskopio bidez Bonelliko arranoa ikustea da; larunbat honetan, hilak 20, 09:30etik aurrera egingo da Irunberriko arroilaren aparkalekuan. Aldez aurretik izena eman behar da 948 88 08 74 telefono-zenbakira deituta edo mezu elektronikoko bat bidaliz ondorengo helbidera: [cinlumbi@navarra.es](mailto:cinlumbi@navarra.es)

Gainera, zentroan "Naturari egindako omenaldia" izeneko argazki-erakusketa ikusi ahalko da hil amaiera arte.

### Erronkariko interpretazio-zentroa

[Erronkariko interpretazio-zentroa](#) Izabarako bisita gidatu bat eskaintzen du asteazkenero, 19:00etan, eta baita Erronkarin ere,

ostegunetan, 19:00etatik aurrera.

### **Otsagabiako interpretazio-zentroa**

[Otsagabiako interpretazio-zentroa](#) ak kultur nahiz natur jarduerak eskaintzen ditu. Kultur arloan, Muskildako Andre Mariako monumentu-multzorako bisita gidatuak egin ahalko dira astearte, ostegun eta igandetan, 18:00etan hasita. 45 minutuko iraupena du, eta helduek 1,5 euro ordaindu behar dute. Interesa duten taldeek baldintzak honako toki hauetan kontsulta ditzakete: 948 39 40 60 telefono-zenbakian eta [www.ochagavia.com](http://www.ochagavia.com) webgunean.

Kulturako bisita gidatuak ere antolatzen dira Otsagabiara eta Ezkarozera. Otsagabian (bisitaren barnean, San Juan Evangelistako eliza ere sartzen da), astelehen eta asteazkenetan egingo dira, 18:30ean, turismo-bulegotik abiatuta; Ezkarozen, berriz (udalerria ezagutzeaz gain, historiaz eta Pirinioetako kondairez buruz ariko dira), ostiraletan egingo dira, 18:30ean, herriko plazako kioskotik abiatuta. Bi kasuetan, ibilbideak ordu eta erdi iraungo du, helduek 1 euro ordainduko dute, eta haurrentzat (18 urte arte) doan izango da. Interesdunek informazioa ondorengo tokietan topa dezakete: 948 89 06 41 telefono-zenbakian eta [oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es) helbide elektronikoan.

Natur ondarea ikusteko bisitetan, Abodi inguruan gidatutako ibilbideak eskaintzen dira ostiraletan, 10:00etan aurrera, Abodiko zentrotik irtenda (Larrauko errepidea, 7. kp). Benasako arroilako natur erreserba eta Santa Maria del Campoko baseliza erromanikoa bisitatzeko da beste aukera bat, Pirinioetako saiaren lurraldea zein den jakiteko. Asteartetan, 10:00etan egiten dira bisitak baselizatik bertatik irtenda. Bi irteerak doan dira, egun erdikoak dira eta aurrez izena eman behar da irteera baino 24 ordu lehenago gutxienez 948 89 06 41 telefono-zenbakian eta [oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es) helbide elektronikoan.

### **Cañasko urtegia**

[Vianako Cañasko urtegia](#) n naturgune hori ikusteko bisita gidatuak eskaintzen dira, ostiraletan egiten dira 18:00etan hasita, hegaztien behatokitik abiatuz. Bisita doan da, eta ordu eta erdi irauten du. Aurrez izena eman behar da, 48 ordu lehenago gutxienez, 696 83 08 98 telefono-zenbakira dei eginez.

### **Bertziko Jaurerriko natur parkea**

[Bertziko Jaurerriko natur parkea](#) ak hainbat jarduera eskaintzen ditu urte guztian, 25 eta 60 pertsona arteko taldeentzako bisita gidatuak lorategian, esaterako, aurrez erreserba eginez. Autogidatutako ibilbideak egin daitezke ere laguntzeko materialarekin, lorategian bertan (zentzumenezko ibilbidea) nahiz naturako interpretazio-zentroan, bai eta basoko bideetan ere. Haurrek beraiantzat prestatutako berariazko jarduerekin ere goza dezakete, pisten jolas bat egiten da haiekin eta, jolas horri esker, lorategia era autogidatuan bisita daiteke, intereseko informazioa eta edukiak asmatuz.

Irailaren 18an, igandea, ate irekien egun bat prestatu da. Hilabete guztian ere, Itxusi Argazki Taldearen "Natura" argazki-erakusketa ikusi ahalko da jauregiko erakusketa-aretoan.